

PRENTSA OHARRA: 2026.06.12

Ireki da Etxepare – LABORAL Kutxa Itzulpen Sariaren 12. edizioaren epea

- Hautagaitzak uztailaren 10era arte aurkeztu ahal izango dira
- Sariaren zuzkidura ekonomikoa handitu da, eta saritutako lanen sustapenerako baliabideak indartu dira
- Euskarazko literatura hizkuntza, irakurle, merkatu eta kultur testuinguru berrietara iristea ahalbidetzen duten itzultzaile eta argitaletxeen lana aitortzen du sariak

Donostia, 2026ko ekainaren 12a-. Etxepare Euskal Institutuak eta LABORAL Kutxak Etxepare-LABORAL Kutxa Itzulpen Sariaren edizio berri bat jarri dute abian. 2015etik, sariak euskarazko literatura irakurle berriengana iristea eta beste hizkuntza, merkatu editorial eta kultur testuinguru batzuetan bere presentzia indartzea ahalbidetzen duten itzultzaile eta argitaletxeen lana aitortzen du, euskal literaturaren nazioarteko zirkulazioan egiten duten ekarpena balioan jarriz.

Aurtengo edizioak hainbat berrikuntza dakartza saritutako lanen nazioarteko zabalkundea indartzea helburu hartuta. Nabarmenena sariaren zuzkidura ekonomikoaren igoera da: 4.000 eurotik 6.000 eurora pasa da. Zenbateko hori itzultzaileak eta lana argitaratu duen argitaletxeak jasoko dute, erdibana

Halaber, nazioarteko sustapen-jardueretarako laguntza osagarria ere handitu da, 2.000 eurotik 3.000 eurora. Zenbateko hori sari banaketara bertaratzeko edo itzulpena plazaratu den herrialdean obraren zabalkundea sustatzeko erabili ahal izango da. Adibidez, aurkezpenak, komunikazio-kanpainak, elkarrizketak edo irakurleekin topaketak egiteko.

Gainera, Etxepare Euskal Institutuaren *AT! Itzulpena: literatura* deialdiaren bidez lagundutako lanak automatikoki izango dira sarirako hautagai, betiere oinarrietan ezarritako baldintzak betetzen badituzte.

Euskarazko literaturaren itzulpena nazioarteko zabalkundea aitortzen dituen saria

Etxepare-LABORAL Kutxa Itzulpen Sariak ez du soilik itzulpen baten kalitatea aitortzen. Jatorriz euskaraz idatzitako obra bat irakurle berriengana iristeko eta beste literatura-sistema batzuetan txertatzeko egiten den lana ere baloratzen du. Horregatik, epaimahaiak kontuan hartuko ditu bai itzulpenaren kalitatea, eta baita argitaletxearen ibilbidea eta egindako sustapen-lana ere.

Ikuspegi bikoitz horri esker, sariak aitortza partekatua egiten die lan baten itzulpena gauzatzen dutenei eta haren nazioarteko zabalkundean eta ikusgarritasunean laguntzen dutenei. Horrela, euskarazko literatura bere muga linguistikoak gainditu eta irakurle nahiz literatura-sistema berrietara iristea ahalbidetzen duen prozesu osoa jartzen du balioan.

2025ean beste hizkuntza batean argitaratutako euskarazko literatura-lanen itzulpenak aurkeztu ahal izango dira sarira. Hautagaitza itzultzaileak, argitaletxeak edo liburugintzaren, literaturaren nahiz itzulpengintzaren arloko beste edozein eragilek aurkeztu ahal izango du.

Hautagaitzak aurkezteko epea uztailaren 10era arte egongo da zabalik. Oinarriak Etxepare Euskal Institutuaren webgunean (www.etxepare.eus) kontsulta daitezke.

Sari banaketa Itzultzaileen Nazioarteko Egunaren inguruan egingo da, eta Etxepare Euskal Institutuak eta LABORAL Kutxak datozen asteetan emango dituzte ezagutzera tokia eta data.

Aurreko edizioetan saritutakoak:

2025

Manel Rodríguez-Castelló eta Ediciones Contrabando argitaletxea

Glosak / Glosar el mundo (Tere Irastortza)

Poesia · Katalana

2024

Estibaliz Lizaso eta Pol·len edicions argitaletxea

Kontrako eztaeritik (Uxue Alberdi)

Saiakera · Katalana

2023

Amaia Gabantxo eta Parthian Books argitaletxea

Hezurren erretura (Miren Agur Meabe)

Eleberria · Ingelesa

2022

Mariolein Sabarte Belacortu eta Zirimiri Press argitaletxea

Amek ez dute (Katixa Agirre)

Eleberria · Nederlandera

2021

Nami Kaneko eta Shinchosha argitaletxea

Soinujolearen semea (Bernardo Atxaga)

Eleberria · Japoniera

2020

Eider Rodriguez, Lander Garro eta Literatura Random House

Bihotz Handiegia (Eider Rodriguez)

Narrazioak · Gaztelania

2019

Ainara Munt Ojanguren eta Pol·len Edicions

Hilda dago poesia? (Joseba Sarrionandia)

Poesia · Katalana

2018

Amaia Gabantxo eta Center for Basque Studies (University of Nevada, Reno)

Harri eta Herri eta Maldan Behera (Gabriel Aresti)

Poesia · Ingelesa

2017

Yaroslav Gubarev eta Anetta Antonenko

Behi euskaldun baten memoriak (Bernado Atxaga)

Eleberria · Ukrainera

2016

Nami Kaneko eta Hakuishisa argitaletxea

Mussche (Kirmen Uribe)

Eleberria · Japoniera

2015

Isaac Xubín eta Kalandraka argitaletxea

Tempo de exilio (Joseba Sarrionandia)

Poesia · Galegoa

Etxepare Euskal Institutua

Etxepare Euskal Institutua Eusko Jaurlaritzaren erakunde publikoa da, eta bere eginkizuna da euskara, euskal kultura eta euskal sorkuntza nazioartean proiektatzea, eta hauen bidez beste eskualde, herrialde eta kulturekin harreman sendo eta iraunkorrak eraikitzea. Horretarako, kalitatezko jarduera artistikoak

sustatzen ditu, sortzaileen, artisten eta kultura eta sormen industrietako profesionalen mugikortasuna bultzatzen du, eta euskal ikasketak sustatzen ditu eremu akademikoan. Era berean, nazioarteko lankidetzak sustatzen du, bai kultura arloan bai unibertsitatearen esparruan.

Info +

Komunikazioa
Etxepare Euskal Institutua
Tabakalera / Andre Zigarrogileen plaza, 1
Donostia / San Sebastián
T: 943 023 400 / M: 688 670 217
komunikazioa@etxepare.eus
www.etxepare.eus